

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak aitortu gabeko enpleguaren aurka herritarrak kontzientziatzeko kanpaina abiaraziko du

Langilea babestea, enpresen lehiakortasun desleiala saihestea eta iruzur fiskal murriztea ditu xede

Miércoles, 12 de noviembre de 2014

Nafarroako Gobernuak komunikazio-kanpaina bat abian jarriko du; haren helburua da, Nafarroako biztanleak ezkutuko ekonomiak eta aitortu gabeko enpleguak langilearengan, enpresetan beraietan eta herritarrengan oro har diru-sarrera publikoak murrizteagatik zer ondorio txar dituen, horri buruz kontzientziatzea

30.000 euro balio duen ekimena sartzan da, alor horretan 2012an Estatuko Administrazio Orokorrarekin, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioarekin eta Foru Komunitateko eragile ekonomiko nahiz sozial nagusiekin (Nafarroako Enpresarien Konfederazioa eta UGT eta CCOO sindikatuak) izenpetutako akordio instituzionalaren barnean.

Deklaratu gabeko enplegutzat jotzen da, langilea Gizarte Segurantzari alta emanda ez dagoen lan-egoera; lan egindako ordu guztiak ez dira aitortzen; lana prestazio sozialekin ez dira ondo bateratzen, langabezia barne; lanbide bat lan-baimenik gabe egiten da, atzeritarrekin gertatzen dena; edo autonomo moduan lan egiten da alta eman gabe edo lan egindako ordu guztiak aitortu gabe.

"Kontraturik gabe, ez zaizu ikusten" lelopean, kanpainak nafar guztien laguntza jaso nahi du iruzurrezko jardunbide horiek desagertzeko; hala, ostiraletik aurrera eta datozen lau asteotan, tokiko prentsako edizio digital eta idatzietan informazio-mezuak jarriko dira; irratirako iragarkiak entzule gehien dituzten irratietan; panelak jarriko dira garraio publikoko markesinetan eta zenbait ekintza egingo dira kalean. Gainera, dibulgaziozko horma-irudi eta liburuxkak argitaratuko dira honako leku



Kanpainako horma-irudia.

hauetan banatzeko: enplegu-agentziak, sindikatuek Foru Komunitate guztian dituzten informazio-puntuetan, enpresa-elkarteetan eta enpresetan. Horrez gain, 848 42 76 45 telefono-zenbakian informazio eskaintzen da aitortu gabeko edozein egoerari buruz, eta www.navarra.es webgunean ere [kontsulta](#) daiteke.

Biztanleei bidali nahi zaien mezua, aitortu gabeko enplegua izateak gizarterako zer ondorio dituen jakinaraztea da, batez ere. Langileei eragiten die lehenik eta behin, beren lan-eskubideak eta onurak kentzen dizkielako, bai eta dagozkien prestazio sozial eta osasun-mailakoak ere; enpresa zintzoei ere neurri handi batean kaltetzen die, desabantaila-egoeran eta lehiakortasuna desleialeko egoeran jartzen dielako; horrek haien garapena eta hazkundea eragozten die. Azkenik, gizarte guztiari egindako iruzurra da diru-sarrera publikoak eta herritarrentzako oinarrizko zerbitzuen gastua murrizten dituelako.

Nafarroako ezkutuko ekonomia

Nafarroako Gobernuak agindutako ezkutuko ekonomiari buruzko azterketa baten arabera, 2008tik 2012a bitarte ezkutuko enplegua igo egin zen; 2012an, 46.000 lanpostu zeuden era horretan, eta Ogasunean 528,3 milioi euroko galerak eragin zituen.

Egileek ondorioztatu dute aldi horretan Nafarroako ezkutuko ekonomiaren indarra BPGd-aren % 13 eta %18 artekoa izan dela Estatuko batez bestekoaren azpitik 5 puntu, hau da, indar gutxien duen bigarren foru-komunitatea da, Madrilén atzetik. Eragin txikiago hori Nafarroak dituen ezaugarri ekonomiek azaltzen dute; izan ere, tradizionalki iruzurrezkoak izan diren sektoreek, eraikuntza eta turismorako ostalaritza, beste autonomia-erkidego batzuetan baino indar gutxiago dute.

Ezkutuko ekonomiaren ondorioa murrizteko politikak lantzeko gomendio moduan, egileek proposatzen dute, erreforma judizial eta zergazkoa; kontzientziazio sozialeko neurriak abian jartzea, eta haien artean dago Nafarroako Gobernuak abian jarritako komunikazio-kanpaina; horrekin batera, ezkutuko ekonomia oso mugatuta dagoen jardueretako sektoreak sustatzea, goi-teknologiako industria bereziki, eraikuntza eta zerbitzuen kaltetan. Azkenik, lan-ikuskapenak handitzea gomendatzen dute eta, zerga-mailan, zergen ordainketa sinplifikatu eta erraztea.